

Xedea

Bermeoko udalerriko bolumen handiko hondakinak biltzeko zerbitzua kontratuaren 1. luzapena

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIAREN ADOSTASUN OHARRA

Ingurumen teknikariaren 2021eko uztailaren 20ko erabaki-proposamenari txostena egin zaio (KON_IRE_0005 espedientea), Bermeoko udalerriko bolumen handiko hondakinak biltzeko zerbitzu kontratuaren luzapenari buruzkoa.

Espedientean Idazkaritzako AOTren txostena dago, 2021eko uztailaren 21ekoa.

Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.b) artikulua ezartzen du nahitaezko lege-aholkularitzaren eginkizuna alde aurreko txostena egitea dela, lege-edo erregelamendu-manuren batek hala ezartzen badu. Zentzu horretan, SPKLren Hirugarren Xedapen Gehigarriak, 8. atalean, adierazten du nahitaezkoa dela idazkaritzalanpostua betetzen duen pertsonaren txosten juridikoa, kontratuen luzapenei buruzko prozeduretan.

Aurrekoarekin lotuta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.4 artikulua arabera, idazkariaren txostena adostasun ohar batean eman ahal izango da, udalaren zerbitzuek emandako txostenei dagokienez, eta espedientean txosten juridiko gisa agertzen badira.

Horrenbestez, **ADOSTASUN-OHARRA** egiten da espedientearekin bat doan txosten juridikoari. Txosten hori Idazkaritzako AOTk egin du, arestian aipatu den bezala.

Orri oinean, sinadura eta data.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500074B5900S1B6M9S6H300

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO-IDAZKARITZAKO A.O.T - 21/07/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/07/2021
08:42:25

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0005
Data: 18/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500074B5900S1B6M9S6H300

